



Ttantaka taldearen euskarazko antzezlanaren datorren maiatzaren 13an eskainiko dute Basteron, gaueko 21:30ean hasita

Santa Krutz eguna, tradizio handikoa Andoainen eta Azkorten

Eguraldia lagun, astearte goizean musikariek eta dantzariak saio zirrargarria eskaini zuten Andoainen.

Santa Krutz egunari hasiera Ikurriñaren jaitsierarekin ematen diote. Tradizio handiko ekitaldia izaten da, Goikoplazatik Udal agintariak eskopetroekin eta txistulariekin jaisten diren bitartean, Santa Krutz elizaren kanpoaldean Urkiko dantzariak zain izaten dituzte. Agintarien jaitsieran, lehen aldiz parte hartu zuten iaz zinegotzi kargua hartutako EH Bilduko Jon Zuluetak, PSE-EEko Alvaro Gonzalezek edota EAJ-PNVko Imanol Goenagak. Ganimos eta Irabazi alderdietako ordezkariak ez zuten ekitaldian parte hartu.

Elizara bitarteko kalejira egin zuten goizeko 10:30etan. Meza amaituta, dantzariak brokel dantza eskaini zuten. Gutxira, txakolin dastaketa izan zen. Bost eguneko ospakizunei amaiera eman zieten iluntzean pintxo lehiaketarekin eta eleganteen kalejirarekin.



Txistulariak eta dantzariak elkarrekin, Ikurriñaren jaitsiera amaitu berri. Meza eta gero, beste saio bat eskaini zuten.

USADIOZKO ERROMERIA URNIETAKO AZKORTEN

Urnietan ere erromeria ospatu zuten Santa Krutz egunarekin batera, Buruntzaren hegalean kokatzen den Azkorteko ermitan.

Mezaren eta elorria bedeintzeko ohituraren ostean, herri kirolarien, bertsolarien eta trikitilarien txanda iritsi zen, festa girotzeko asmoz.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]
[ANDOAIN, GEHIGARRI BEREZIA]



Moko baserriko kideak, erromerian urtero legez. Ezker eskuin, Maite Iturrioz eta Lizeaga anai arrebak: Lourdes, Nikanor, Luis eta Batista. Atzean, Antonio Kerejeta.

Xabi Paiaren bisitaldia Urnietara

Donostia 2016 ekimeneko kultur zuzendaria Urnietara bertaratu zen, "Gabon Txirrita" antzezlanaren entsegura.

Urtea aurrera doa eta irailaren 10ean "Gabon Txirrita" antzezlanaren taularatuko dute Donostiako Trinitate enparantzaren, urnietar askoren parte hartzearekin. Antzezlanaren martxa zuzen-zuzenean jarrai-



Xabi Paia Donostia 2016 ekimeneko kultur zuzendaria.

tzeko, Xabi Paia eta bere bi lankide Sarobera hurbildu ziren aurreko astean. Pozarren joan ziren antzezlanaren martxa ikusi eta gero. Xabier Leteren asmoari eutsi nahi diote, 2016an ere: "Bagenekien Urnietan bazegoela nahiko jende antzerkita bideratua. Aurreko herri-antzerkietan parte harturakoak eta abar. Hori berreskuratu nahi genuen, jende berriari irekita, eta duela 34 urtekoarekin lotura galdu gabe". Urnietako egitasmoa, beraz, martxa onean doa.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Urnietako lasterkarien hiriburua



Aurreko asteburuan Super Hren bigarren festa eta Urnietako Mendi Lasterketaren bosgarren edizioa ospatu ziren. Ohi bezala, lasterkari askoren erreferentzia bilakatu zen Urnietako herria. Lasterketan, Aritz Egea eta Aitziber Ibarbia jaun eta jabe izan ziren, baina ezin aipatu gabe utzi Jokin Lizeagaren hirugarren postua eta Jon Ugaldereen zazpigarrena.

Bezperan, berrehundik gora haur eta gaztetxo San Juan plazako "mendi ibilbide" berezian gozaten aritu ziren.

[GEHIGARRI BEREZIA]



Sutea Olagain auzoan

Aurreko igande eguerdian ke beltz ugari bota zuen sutea piztu zen Celulosas Sites enpresa zen eraikinean.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

Pirritx,
Porrotx
eta Marimotox

AMALLUR

Sarrerak salgai: ANDOAIN: Ernaitza. URNIETA: Kantoï, Xauxar

Maiatzak **20**, ostirala

Egape Ikastolako
jolastoki estalkia

17:30

URNIETA

7€

ANTOLATZAILEA:



AIURRI
BETERRI-AIZTONDOKO HAMABOSKARIA



“GABON TXIRRITA” DONOSTIA 2016REN BAITAN IRAILAREN 10EAN TRINITATE PLAZAN

“Txalogarria da antzezleen inplikazioa eta poza”

Xabi Paia Donostia 2016ko kultur programaren zuzendaria, Inesa Ariztimuño Donostia 2016ren baitan dagoen Bakearen Itsasargia proiektuaren arduraduna, eta Lierni Castaño Donostia 2016 komu-

nikazio atalean lanean ari denaren bisitaldia jaso zuten Saroben “Gabon Txirrita” obraren entsaioetan dabilzan aktoreek. Aiurrik Donostia 2016ko antolakuntza taldeko iritziak jaso zituen.



Donostia 2016ko "Bakearen Itsasargia" proiektuaren baitan kokatu dute “Gabon Txirrita” antzezlan, besteak beste, pasa berri den **Stop War** festibala, edota laster inauguratuko den **Bake-ituna** deituriko erakusketaz bezala. Proiektu horren baitan eskaintzen ari diren kultur adierazpen guztiak, bakea, giza eskubideak, giza duintasuna, identitatea, elkartzasuna, bezalako hitz-gakoetan oinarritzen dira.

Nola iritsi zen “Gabon Txirrita” antzezlan Donostia 2016ko antolakuntza talderaino?

Xabi Paia: Donostia 2016k bere programazioa lantzerakoan, gai nagusia, elkarrekin bizitzeko kultura da, horrek esan nahi du, bertan parte hartuko duten proiektu denek sustatu behar dituztela balio eta gogoeta batzuk, edo hautsi behar dituztela gaur egun ditugun hainbat aurreiritzi, etorkizuneari denok hobeto bizi gaituzten. Horretarako, programak egitura bat dauka, beti ere, kulturatik, artetik, begiratuta. 2016ko hautagaitzatik presente genituen, adibidez, Shakespeare eta Cervantes, aurten betetzen delako bien heriotzaren 400. urteurrena. Eta hemen bizi garenontzako biak kultur erreferentzia argiak dira. Baina, elkarbizitza sustatu behar baldin badugu, ezin dugu ahaztu, badela euskal erreferentzia bat ere. Ez daukagu 400 urteko efemeriderik. Kasu honetan, baina hainbat jenderekin lanean ari garenez, horien artean Joxan Goikoetxearekin, beregan informazio bila jo genuenean, berak eman zigun Xabier Letek idatzitako “Gabon Txirrita” obraren kopia bat.



Donostia 2016 antolakuntza taldeko Lierni Castaño, Xabi Paia eta Inesa Ariztimuño Urnietara orain egun gutxi egindako bisitaldian.

Eta nola justifikatzen duzue programazioan txertatu izana?

X.P.: Inesak eta biok irakurri genuen. Ikusi genuen zein interesgarria den Letek planteatzen duen epaiketa, nola juzgatzeko den Txirrita. Obra honetan, neurri handi batean, tradizioa epaitzen da. Txirrita maitatua da, pertsonaia bat, bere aipamenak 80 urtetan izango zirela esan eta aski gaudituko duena. Obra honek, XXI. mendeko euskaldun batek ezaugu behar dituen hainbat balio uztartzen ditu. Horrelako perla bat nola ez dute ezagutzen laurogeitik aurrerako belaunaldiek? Memoria eta belaunaldien lotura lantzen du. Eta horri erantsi behar diogu, Lete eta Txirrita presente egotea. Gaur egun, Euskal Herrian ehuneko ehunetan bizi nahi duen norbaitek bere kultur erreferentzian Shakespeare eta Cervantes bezala, Txirrita ere izan behar du.

Zer nolako bidea egin du gaurdaino?

X.P.: Bide luzea egiten ari da. *Gabon Txirrita* ingelesez azaldu berri dut Bruselan. Aipatuaz herri antzerkia, eta urnie-

tarrak nola ari diren lan horretan, eta bestetik, Leteren obratik abiatuta Bernardo Atxaga idazten ari den obra berria. Donostian ere, ahalegin bereziko egingo dugu honen berri emateko.

Ez al zaizue iruditzen Donostiaren dexenterentzako Txirrita ezezagun bat dela?

X.P.: Txirrita izeneko kalea daukan hiriburu batez ari gara. Euskal historialari batek aztertu nahi baldin badu bertso idatzen bidez XX. mendean gizartea nolako zen, ezingo du Txirrita ai-



Miren Eskisabel donostiarrak izango da Gabon Txirrita antzezlaneko aktoreen makilatzailea.

“Gaur egun, Euskal Herrian ehuneko ehunetan bizi nahi duen norbaitek bere erreferentzia kulturaletan Shakespeare eta Cervantes bezala, Txirrita ere izan behar du”

patu gabe egin. Kubako gerrari buruz euskaraz idatzita dauden erreferentzia nagusiak bereak dira, beste gauza bat da horri bakoitzak zer balio ematen dion. Gurea atek irekitzeko proiektu bat da, eta besteak beste, jendeari erakutsi beharko diogu nor den Txirrita.

Argi zenuten antzezlan Urnietako herritarrekin egitekoazela?

Inesa Ariztimuño: Leteren hasierako ideiarekin bat egin nahi izan dugu. Bagenekien Urnietan bazegoela nahiko jende antzerkita bideratua. Aurreko herri-antzerkietan parte hartutakoak eta abar, hori berreskuratu nahi genuen, jende berriari irekita, eta duela 34 urtekoarekin lotura galdu gabe. Ez genuen inoiz pentsatu, *Urnietan ezetz esaten badigute nora joango gara?* Ez genuen hori kontenplatu, ezta hipotesi gisa ere. Zuzentzeko ere, euskal antzerkigintzari lotua eta Urnietan sarrera zentzuzkoa edukiko zuen norbait nahi genuen; Miren Gojenola eta Mikel Lascurainek baiezkota eman izanak lana asko erraztu digu.

Zergatik Donostiako Euskal Jailetan eta Trinitate plazan?

X.P.: Euskal Jailetan kokapen egokia ikusten genion, eta berehala, antolakuntzakoekin hitz egin genuen, eta oso erraza egin zaigu. Nahi duguna da, ahalik eta jendetsuena izatea, eta gogorazazi diezagula Txirritaren plazako jarduna, nahiz eta saio gehienak sagardotegian egingo zituen. Txirritaren esentzia hori ere presente izatea nahi genuen Leteren letren bitartez bada ere.

Obrak ba al du gaurkotatzen?

I.A.: Jorratzen diren gaiak badute gaurkotatzen, baina, ez dugu ahaztu behar duela 40 urte idatzitakoa dela, eta orduko testuinguru kontuan eduki behar dugula. Epaietan giza eskubideak oso presente daude, ikusi besterik ez dago nola tratatzen diren emakumeak edo andaluzak. Gaur egun ere bizi ditugu antzeko arazoak migratzaileekin. Elkarbizitzaren inguruko gogoeta bat ere sorrazten du.

Aurreikusitako Donostiako eta Urnietako emanaldiez gain, besterik izango al da?

I.A.: Bi emanaldi horiek eskatu dizkiegu, hortik aurrerako ibilbidea taldearen esku geldituko da. Prestakuntza lan guztia eginda egongo baita. Gure aldetik ikusten genuen borondatez lanean ari den talde bati ezin geniola, adibidez, 10 emanaldi eskaintzeko konpromisoa eskatu.

Leteren obratik abiatuta Bernardo Atxaga obra berri bat idazten ari dela aipatu duzue.

X.P.: Bai, Letek idatzitako obra oinarri hartuta, obra berri bat idazten ari da, badakigu, Leteri buruzko informazio bila Urnietan erdia *mareatu* duela. Oso aurreratuta dauka, eta hori ere urtea bukatzerako antzerki talde profesional batek taularatuko du. Interesgarria iruditzen zaigu Atxagarena ikusiko dutenek, aurrez obra hau ikuste. Bi hanka horiekin osatutako proiektua baita.

Gaurko entsaioan izan zarete, zein inpresio jaso duzue?

X.P.: Taldearen poza eta inplikazioa benetan txalogarria da. Pentsatzen nengoan, Urnietako zenbat sukaldeetan sortuko diren elkarrizketak honi buruz. *“Nik ikusi nuen, ni egon nintzen...”*, proiektu honek zenbat onura eragiten duen hemendik urte batzuetara jabetuko gara.

Santa Krutz eguna, tradizio handiko eguna Azkorten



Julen Cañamares aizkolariak saio ikusgarria eskaini zuen.

Nahiz eta **Ergoien** auzoan egon ermita, Urnietako gainerako auzoetako (**Oztaran**, **Lategi** eta **Goiburu**) biztanleak ere bertaratzeko joera izan ohi dute. Aspaldiko ohiturari jarraiki, elorri zuria eskuetan hartuta ermitara hurbildu ziren maiatzaren 5an. Garaitsu honetan loretan den elorria bedeinkatu nahi izan dute horrela, usadioa berrituz. Izan ere, base-ritarrentzat hazia eriteko sasoa da, eta elorria ereindako soroan jartzen da, uzta ona izateko.


Mezak eliza jendez betetzea

lortu bazuen ere, ondorengo jaian jaitsi zen ikusle kopurua. Adineko jendea izan da nagusi, ulertzekoa asteartea eta lan eguna izaki.


Patxi Etxeberria eta **Anjel Larrañaga** bertsolariak gai librean aritu ziren, elkarri ziria sartu nahian. Herri kiroletan, plazara atera berria den **Imanol Illaramendi** "Kortaberri" harri-jasotzailea eta **Julen Cañamares** aizkolariak jardun zuten. Horiekin batera, **Peio Cañamaresek** aurkezle lanak egin zituen, motozerrarekin egurrean irudi politikak egiteaz gain.



Urnietako apaiza Azkorteko ermitan. Atzean, Egaña eta Jauregi txistulariak.



Cañamares, saioaren hasieran.



Imanol Illaramendi "Kortaberri".



Peio Cañamares lan bikoitza egin zuen. Saioa aurkezteaz gain, erakustaldia eskaini zuen motozerrarekin.



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Torturak badu izenik

Tortura, torturatuak, torturatuak ez dira gizarte honetatik kanpo bizi diren fikziozko pertsonaiak. Torturak badu izena eta izana. Ez du mugarik eta mendez mende dirau. Bere egitekoa gizakia objektu bat baltzan tratatzea da; gizakiaren duintasuna desegiteko jaioa; eta zenbaitetan pertsona hiltzeraino ere iritsi den tresna da tortura. Noski, erabiltzaileek beti ukatu izan dute eta ukatuko dute, baina bizirik dagoen errealitatea da.

Gure herri honetan ere torturak baditu izenak. Uko egin zaio baina herritarren kontzientean beti egon da presente eta testigantza ugari ditugu torturaren errealitatea frogatzen dutenak. Euskal Herrian errepresioak garai edo denbora desberdinak izan ditu. 1936ko gerran eta gerra ondorenean tortura bortitzak eman ziren, tortura fisikoak zein psikologikoak. Diktadura garaian, 1960tik aurrerako urteak izan ziren errepresio indartu zenekoak, non torturak eginkizun eta ondorio gogorak ekarri zituen. Gipuzkoari dagokionean Donostiako Gobernu Zibila eta Antiguako Guardia zibilen komandantzia izan ziren torturaren gune esanguratsuenak. Gogoan dut, garai hartan torturatuak izan zirenen argazkiek torturaren errealitateaz ez zutela zantzarik sortzen. Garai hartako asko gara Eusko Jaurlaritzako Bake eta Bizikidetzarako Idazkaritzatik testigantzak jaso eta biktimatzat hartu gaituztenok. Denok izan dugu guk jasandako torturak batzorde batean aitortzeko aukera. Onartu dizkigute eta zenbaitek ondorio fisikoak ere izan ditu.

Beraz, tortura nork bere gorputzean sentitu duenean, torturarik ez dagoela esateak ez du sinesgarritasunik, askoren bizitzan esperientzia bat izan baita, gogorra, eta esperientzia hori ezin daiteke uka.

1977ko urtetik aurrera ere tortura kasu bortitzak egon dira. Urnietan bertan badugu bat, Gurutze Yantzi komisaldgian hila. Beste kasu nabarmena Joxe Arregirena izan

"Gure herri honetan ere torturak baditu izenak. Uko egin zaio baina herritarren kontzientean beti egon da presente eta testigantza ugari ditugu torturaren errealitatea frogatzen dutenak"

"Azken hausnarketa: Historiaren kontaketa partekatua nahi badugu, derrigorrez onartu beharko dugu torturaren inguruan ETAk ere baduela zer ikusirik, hainbat heriotza ere tortura baitira"

zen; bere torturen argazkiak ezin gogorragoak izan ziren. Amparo Arangoaren argazkiak ere, nafarra bera, izugarriak izan ziren. Gaur Euskal Herrian ez du inork torturarik ukatzen. Eta honetan izan dute erantzukizunik diktadura ondorengo gobernuek.

Kontua da, duela gutxi torturaren errealitatea salatu nahian Iruñean tortura hitza agerian jartzeagatik zenbait pertsona atxilotu zituztela, eta berehala azaldu zen PPko Barne Ministroa Espainian torturarik ez zegoela esanaz. Baina ez du sinesgarritasunik. Area: Prada juezak berak esan du, oker ez banago Tolosan emandako hitzaldi batean, tortura kasuak eman direla. Beraz, zertara datoz atxilotetak errealitate baten berri eman nahi izan dutenean? Nik dakidaneraino, gainera, pankartak tortura hitza soilik zeraman; beraz, pankarta oso aseptikoa zen, baina zenbaiti kontzientzia txarra sortarazi zion, eta, hortik erreazioa.

Argentinako kereilan era badago torturatu izan denik, hemengoak eta hangoak. Servini epaileak baditu zenbait torturatuak izenak, hala nola: "Billy el Niño" delakoa, Martin Villa Gasteizko hilketekin zerikusia duena, Andoni Arrizabalag ondarrutarraren torturatuzailearena eta abar..

Epailearen asmoa Audiencia Nazonalean aipatu torturatuzaileei aitortpena hartzeko orain apirilean etortzeko zen, baina Gobernuak eskaerari uko egin dio. Halere, Argentinako bideari jarraitu beharko

zaio amore eman gabe. Azken berri bat ere jaso dugu, alegia, Servini epaileak Vatikanuari gerra denboran eta gerra ez geroz apaiz eta fraideei eginiko tortura eta emandako hilketen berri eman dezan eskatu dio. Ni ere, hor sartuko nintzateke, Argentinara bidaiatu bainuen Zamorako kartzelan egon ginen garai hartako apaiz eta fraideen izenean eta handik pasatutako denek izan ginen torturatuak. Hortik aparte, badira gerra denboran torturatu eta fusilatuen arteko familiar-tekoen salaketak ere. Argentinako abokatu eta zenbait plataforma gogor ari dira kereila hau aurrera eramaten eta. Itxaropena hor dago.

Halaber, torturarekin jarraituz, duela egun batzuk Donostiako Unibertsitatean, maiatza aldean epaituak izanen direnak, hauen artean irakasle batzuk, hitzaldia antolatu zuten torturari buruz. Hizlariak: Landa Unibertsitateko irakaslea eta Eusko Jaurlaritzan Goza Eskubide sailean aritua; Lorea torturaren aurkako abokatu kidea eta Pako Etxeberria aski ezaguna, torturatuena eta Gernikan bonbardaketaren aurtengo urtemugan saritua izan dena. Moderatzailea epaitua izanen den irakasle horietakoa; torturatu eta torturatu salatutakoa. Hirurek ere hitzaldi borobila eta ikuspegi askotatik jorratu zuten. Testigantza gogorak!

Ondorioa: Giza eskubideen esparrua bermatuz joan behar dugula torturaren lakra behin betiko desagerrarazteko.

Azken hausnarketa: ETAk su-etena igarri zuenetik, herria bizikidetzara mailan urrats asko ematen ari da. Egun hauetan plazaratu da Errenterian bizpahiru urtez isilean elkartu den taldea, non batekoak eta besteak zeuden. Bide egokia da, noski. Baina historiaren kontaketa partekatua nahi badugu, derrigorrez onartu beharko dugu torturaren inguruan ETAk ere baduela zerikusirik, hainbat heriotza ere tortura baitira. Sufrimendu partekatua, bateko eta beste biktimik, denok egin beharko dugu, biktima guztiok alegia, ahalegin bat besteara gurea egiten eta besteek gurea. Errenteriakoa urrats bat da, jarraituko ahal du bide horrek.

Santakruzak giro ezin hobean

2016, maiatza



Bitxikeriak
Arropa

Nagusia, 6.
ANDOAIN
943 59 12 24



Jaien hasiera umoretsua Katramilaren eskutik

JAI BATZORDEKO KIDEEK ANTZERKI TALDEAREN LANARI GORAZARRE EGIN NAHI IZAN ZIETEN, JAIEN HASIERAKO PREGOIA EMATEKO AUKERA ESKAINIZ. UMORETIK HELDU ZIOTEN, BERTARATU ZIRENEI JAIETAN IRRI EGITERA ESKATUZ.

Zumeatarra danborradakoak izan ziren lehenak iristen, ondoren erraldoi eta buruhandiak eta azkenik Gora Kaletxiki txaranga. Orduantxe Zubiaurre etxeke lehen solairuko balkoira Katramila antzerki taldeko dozena erdi bat kide pregoia irakurtzera agertu ziren. Leire Etxeberria "zerbitzaria" eta Helena Zubillaga "danborrera" izan ziren taldeko bozeramaileak. Haien ondoan jaietako ikur nagusiak irudikatzen zituzten txirrindularia, elegantea, dantzaria... Hasiara umoretsua jaiari.



Txirrindularia, korrikalaria, erreka jaitsierako kidea, elegantea, zerbitzaria, dantzaria, danbor jotzailea... jaietako ikur diren mozerroekin agertu ziren balkoian.



Haur eta guraso ugari bildu ohi da Zumea plazan.



Txokolatada haur pregoiaren ostekoa.



Kantuz eta hitzez ongi etorria eman zieten aurtengo jaiari.

Desafioak sekulako ikusmina piztu zuen



Jon Arizmendiren lagunek toreroaren pare hartu zuten irabazlea. Pankarta eta guzti.



Egoitz Gorostegi, Jon Arizmendi, Joseba Otaegi eta Patxi Astibia desafioa amaitu eta gero.

Jon Arizmendik Egoitz Gorostegi "Txatarras" aurkariak baino teknika eta kolpe hobeak agertu zuen, jaien hasierako aizkora desafioan. Ikusmin izugarria piztu zuen herriko bi gazteen arteko kirol hiztorduak, Bekoplaza ikusleez gainezka

zegoen ekitaldia hastear zenerako. Ordura arte zer gertatuko ote zen ikusteko zegoen. Behin proba hasita, ordea, Arizmendi nagusituz joan zen.

Azkeneko Arizmendikalde handia atera zuen; 23 minutu eta 32 segundo

behar izan zituen bi kanaerdiko eta oinbateko bakarra mozteko. Txatarras-en denbora, lan berbera egiteko, 35 minutu eta 14 segundokoa izan zen.

Serio demonio hartutako lanaldia izan zen, lehiakide bakoitzak alboan

zein laguntzaile izan zuen ikustea besterik ez dago. Arizmendik Joseba Otaegi Zizurkilgo aizkolaria izan zuten laguntzaile; Egoitz Gorostegik, berriz, iraganen sona handia eduki zuen Patxi Astibia aizkolari leitzarra.



Urki dantza taldeko gaztetxoek emanaldia

EGURALDIA ESKASA ZELA ETA, URKI TALDEAK ONDARRETA IKASTETXEKO JOLASTOKIAN EGIN ZUEN EMANALDIA. GAZTETXOEK AURTEN IKASITAKO DANTZA BERRIAK ESKAINTZEKO AUKERA EDUKI ZUTEN. GOGOZ JARDUN ZUTEN, IKUSLEEN TXALOAK JASOZ.



Dantzariak saioaren amaiera aldera agur esateko kalejira egin zuten.



Dantzari txikiek aurtten ikasitako dantzak jendaurrean erakusteko aukera baliatu zuten.



Uztai handi eta Uztai txiki dantzak eskaini zituzten, besteak beste.



Arrate frontoiaren azpiko lokaletik irten eta kalejiran Ondarretako jolastokiraino iritsi ziren.

Eguzkiren erreka jaitsiera aldarrikatzailea



Eguzki taldeko kideak eta aurtten jaitsierarako prest agertu diren gazteak, jaitsiera hasi aurretik.



Zubian ikusle ugari zeudela, parte hartzaileek Santa Krutz eliza ingururainoko jaitsiera egin zuten.

“Leitzarari bizi baten alde” lelopean, Eguzki talde ekologistak herriko hainbat gazterekin batera erreka jaitsiera jai giroan egin zuten. Jaitsiera ikusgarria izaten da, parte hartzaileentzat dibertigarria eta zubi eta bide bazterretan da-

biltzanentzat ikusgarria. Jaietako ekitaldiaz haratago, Eguzkiak ibaien zaintzaren aldeko kontzientziarioari eutsi nahi dio. Eta horregatik jaitsiera eta ordu gutxira manifestua argitaratu zuen, Leitzarari eta Oria ibaiarentzat babes han-

diagoa eskatuz: “Gizarteari naiz instituzioei honako mezua helarazi nahi diegu: Leitzarari legezko babesa ematea ez da nahikoa, ibaien kontserbazioaren alde benetako babesa ematera jo behar dugu”. Neurri praktikoak ezartzea es-

katzan dute, hala nola, bertako espezieak iraunarazteko urtez urteko plangintza osatzea. Eguzkirentzat larriena oraindik orain ur zikinak Leitzarari ibaira botatzen direla da: “Ubideratze eta arazketa datarik ere ez dago”.



Jesus "Demi" k ikurriña ipini zuen, jaien hasieran.



Aurten Zumea plazatik abiatu zen erraldoi eta buruhandien konpartsa. Mozorroak eraberrituta azaldu ziren plazara Tolosako dultzaineroek lagunduta.



Baby Band taldekoek jaien hasieran musikaren bitartez giroa alaitu zuten.



Gora Kaletxiki txaranga, ezinbestekoa herriko eta auzoko jaietan.



Zumeatarra elkarteko hainbat barril jotzaile, jaien hasierako pregoiaren atarian.



Kantujira taldea larunbat eguerdian ibili zen, kalez kale kantari.



Artisau azokan herriko hainbat kidek postua ipini zuten.



Bigarren aldiz jarraian Batzokiko Irulegi-Guedejo bikoteak irabazi du Irunberriko bakaillo txapelketa.



Urnietako V. mendi lasterketa

Lasterketa garrantzitsua

Mendi Lasterketa urteko kirol proba garrantzitsuen da Urnietan. Aurtengoan zaila zirudien arren, data atzeratzearekin Urnietakoak beste hainbat lasterketarekin bat egiten zuelako, Euskal Herriko mendi lasterkari onenetsuetakoak Adarra aldera gerturatu ziren. Euskal selekzio lasterkariak, esaterako, eta baita maila bikaina erakusten ari diren beste hainbat lasterkari ere. Probak igande eguerditik aurrera jendetza bildu zuen San Juan plazan. Herrikideak ziren asko, baina baita beste herrietatik iritsitako korrikalarien senide eta lagun asko ere. Korrikalarien eta ikusleen arteko bat egite liluragarria suertatu zen: Korrikalariena, amaierara iristeak dakarren pozigatik; eta ikusleena, lasterkaria helmugara iristen ikusteak sortzen duen miresmenagatik. Hitz bitan, maiatzaren 1ean giro bikaina sortu zela. Eta horretan lagungarria izan zen oso Aitor Elduairen kazetariaren lana.



Aritz Egea irabazlea eta Aitor Elduairen probaren aurkezlea, biak ala biak bere langintzan maisuak.

Helmugan irudi eder asko izan ziren. Batek baino gehiagok azken metroak haur txikiekin batera egiteko aukera baliatu zuen, probaren amaierari ospakizun modukoa emanez. Seigarren edizioa gertuago dago.

ARITZ EGEA

Lasterketa luzeko irabazlea

“Sentsazioak ez dira onenak izan, baina tira. Ibilbide aldaketa egin dute Urnietan, eta nik pertsonalki aldaketa gogoko dut. Gaurkoa test modura hartu dut, Zegama-Aizkorri laster delako”

JOKIN LIZEAGA

Lasterketa luzeko hirugarrena

“Irabaztera ohituta gaude, baina besteek egiten duten lana ere baloratzen jakin behar da. Asko ententatu gabe, hankean min nuela ateratzen naiz”

EVA GONZALEZ

Lasterketa laburreko irabazlea

“Oso pozik nago egindako lasterketarekin. Ibilbidea gogoko dut. Hori bai, gaikaldean kazkabarra bota du!”

Aitziber Ibarbia

Lasterketa luzeko irabazlea

“Hasieran kosta egin bazait ere, gozatu dut: Adarran jende piloak, Besabin trikitalariak... Lasterketa herrian hasi eta amaitzek merezi duela uste dut”

ALIZIA OLZABAL

Lasterketa luzean bigarren

“Ibilbidea polita da, gogorra. Gozaten ahalegindu naiz. Lokatza zegoen ibilbidean zehar, eta ez dut gehiegi arriskatu nahi izan”

JON UGALDE

Lasterketa luzean zazpiarren

“Oso gustura aritu naiz. Iazkoarekin alderatuta, Onddo zeharkatuta helmugara iristeko asko gertatzen da. Herrirainoko jaitsierarako gorde egin beharra dago. Zegaman aterako naiz hilaren 22an”

urnietako
mendi 
lasterketa

| UML URNIETAKO MENDI LASTERKETA
urnietakomendilasterketa.com

Lasterketa txikia, ospakizun handia

Beste behin ere, mendi lasterketaren atariko haurren ospakizun bilakatu zen Urnietan. San Juan plazaren erdigunean oztopoz beteriko "mendi" ibilaldi modukoa egokitu zuten, eta bertan gozatzen aritu ziren berrehundik gora partaide. 5-10 urte bitarteko lasterkari txikiek urtearen arabera lehiatzen aritu ziren, ia kasu guztietan plazaren kanpoaldera itzuli bat eginez handik "mendi" ibilbidera abiatzeko. Super H elkarteko lagun diren lasterkariez gain, Paladita eta Pantxineta klonw pailazoak eta Irrien Lagunak taldekoa Tiritatxo lasterketa animatuz aritu ziren. Txokolatadarekin eta haur jolasekin, festa borobila izan zen.



Gurasoek, Super Hko kideek eta pailazoek laguntzaile modura parte hartu zuten txikienean lasterketan.



Adinaren arabera antolatu zuten txikienean krosa.



Lasterkari txikiak abiatu berri. San Juan plazan itzulia egin ondoren, "mendi" ibilbidean sartu ziren.



Taldea aritzeko jolasak ez ziren falta izan San Juan plazan.



Golfa, saskibaloia,... lasterketa amaituta plazan jolasean jarraitzeko aukera izan zuten.



Super Hko kideak lasterketan laguntza emanez.



Irteera eta helmuga ospakizun bilakatu zen.



Lasterka aritzeko eta jolasteko aukera izan zen larunbatean.



Pantxineta pailazoak haurren aurpegiak margotzen lagundu zuen.



Super Hko marrazkiak margotzeko aukera izan zen.



Paladita klown pailazoak laguntzaile baten bizkarrera igota, helmuga zeharkatzen.



Irrien Lagunak taldeko Tiritatxok ere larunbateko emanaldian parte hartu nahi izan zuen.



Txokolate jatea, lasterkarien saria.



Salmenta postuan ibili zen bolondres hirukotea.



Berrehundik gora haurrek parte hartu zuten lasterketa txikian.

Helmugara iristearen dizdira

Urnietako mendi lasterketa proba gogorra da, eta ibilbidean zehar gauza asko gerta daitezke. Igandean bertan, lasterkariak mendian gora zihoazela kazkabarrak bere agerpena egin zuen. Lehenik ere ez da samurra igoera, eta gainera eguraldiak are gehiago gogortu behar! Zorionez, zerua urdinduz joan zen helmugara bidean.

Bi lasterketa ezberdin burutu ziren, horrelakoetan gertatu ohi den bezala. Lehen, proba gogor horietara ohituta daudena. Bigarrena, lasterkari apalena.

Lehen postuetan iristen direnak helmuga zapaltzera ohituta daude. Are gehiago, lasai ederrean jar daitezke hizketan helmuga zapaldu eta segundu gutxira. Lasterkari gehienentzat, ordea, mendi lasterketa bat prestatu eta amaitzea balentria modukoa da. San Juan plazako helmugara pozaren pozez iritsitako lasterkariak askotxo izan ziren. Denbora apalak eginenez, baina zorionean txapeldun sentitzen ziren. Norberak bere buruari erronka ipini, prestakuntzan ahaleginak egin eta ibilbide osoa zeharkatu eta gero helmugara iristearen dizdira hori korrikalari askoren begiradan ikus zitekeen. Huraxe zen pozaren irudia. Bejondeiela!



Iker Oliveri bigarren sailkatua, Aritz Egea irabazlea, Jokin Lizeaga hirugarren sailkatua eta segundu gutxira laugarren iritsi zen Joxe Aunarriz.



Jon Ugalde andoaindarra bikain, zazpigarren.




Mikel Legarreta edizio guztietan irten da.



Asier Martinez urnietarra.



Harkaitz Labega andoaindarra.



Maialen Gurrutxaga eta Imanol Galarraga.



Urko Otaño andoaindarra.



Jaime Real andoaindarra.



Unai Ugartemendia andoaindarra.



Alizia Olazabal bigarren sailkatua, Aitziber Ibarbia txapelduna eta Andrea Garay hirugarren sailkatua.



Campos hirugarren sailkatua, Gonzalez irabazlea eta Iglesias bigarren sailkatua ibilbide laburrean.



Jon Ander Villar urnietarra.



Elena Santervas eta Iñaki Baños urnietarrak.



Iñaki Narbarte urnietarra.



Haritz Zubilaga urnietarra.




Mikel Nogales andoaindarra.



Tomax Pellejero urnietarra.



Iñaki Blanco andoaindarra.



Peio Martin urnietarra.




Josu Arabaolaza andoaindarra.




Jonathan Lopez urnietarra.



Joxe Mari Izagirre urnietarra.



Iker Mujika andoaindarra.



Mikel Olano urnietarra.

Lasterkariak Adarrara bidean



Xuban Ezeiza urnietarra.



Igor Amantegi urnietarra.



Unai Martinez urnietarra.



Ivan Piñon andoaindarra.



Xabier Ansa urnietarra.



Aitor Azurmendi andoaindarra.



Jose Luis Lopez urnietarra.



Ainara de Miguel urnietarra.



Andoni Urbistondo urnietarra.



Marikarmen Martin, Maite Begiristain.

Ibilbide laburra, sailkapena

GIZONEZKOAK POSTUA | IZENA | DORTSALA

1	01:23:31	Mikel	Senperena	Abaltzisketa	516
2	01:24:00	Lorenzo	Galeano	Elgoibar	492
3	01:24:33	Andoni	Saldias	Tolosa	425
4	01:25:02	Mikel	Lopetegi	Tolosa	424
5	01:26:36	Xabi	Intxauspe	Hernani	478
6	01:27:28	Josu	Lete	Bergara	458
7	01:28:31	Ivan	Elizazu	Hondarribia	510
8	01:28:45	Jon	Ramos	Urnieta	475
9	01:28:54	Josu	Flores	Irura	484
10	01:29:43	Xabier	Herrera	Irun	469
11	01:30:22	Mikel	Eguren	Andoain	519
12	01:31:58	J. Ignacio	Moreno	Villabona	477
13	01:32:03	Igor	Altolaquirre	Oiartzun	450
14	01:33:55	Jagoba	Solaberrieta	Aia	231
15	01:33:59	Luis	Narbaiza	Zaldibar	491
16	01:34:18	Aitor	Dionisio	Zumarraga	456
17	01:35:03	Iñigo	Ruiz	Amezketta	517
18	01:35:44	David	García	Irura	440
19	01:35:45	Felix	Belauzaran	Tolosa	429
20	01:36:50	Mikel	Agirresarobe	Irun	476
21	01:36:56	Ander	Zubizarreta	Urnieta	453
22	01:37:11	J. Mari	Altuna	Urnieta	503
23	01:37:13	Mikel	Olaizola	Azpeitia	47
24	01:37:20	Xabier	Mujika	Lasarte	500
25	01:37:20	Asier	Diaz	Lasarte	514
27	01:37:50	Beñat	Agirresarobe	Hendaye	472

28	01:39:05	Eloy	Gonzalez	Errenteria	538
29	01:39:13	Josu	Fernandez	Lezo	486
30	01:40:32	Joseba	Aldasoro	Errenteria	479
31	01:40:48	J. Mari	Marcos	Lasarte	445
32	01:41:22	David	Elizburu	Donostia	443
33	01:42:44	Xabier	Zabaltza	Arbizu	518
34	01:42:48	Joseba	Placeres	Donostia	76
35	01:43:00	Manex	Idiakez	Lazkao	546
36	01:43:19	J. gnacio	San Jose	Astigarraga	467
37	01:43:49	Unai	Ugartemendia	Tolosa	423
39	01:45:18	Julen	Miranda	Donostia	431
40	01:45:18	Andoni	Altuna	Arrasate	495
41	01:45:32	Javier	De La Parra	Irun	550
43	01:46:18	Gorka	Mir	Elgoibar	541
44	01:46:22	Koldo	Barberena	Hondarribia	461
45	01:46:41	Egoitz	Zaplain	Astigarraga	501
46	01:46:48	Joseba	Mujika	Orio	494
47	01:46:49	Alberto	Porras	Astigarraga	530
48	01:46:58	Yosu	Galdos	Lasarte	439
49	01:47:08	Xabier	Garrido	Irun	549
50	01:47:25	Iñigo	Carcedo	Hernani	528
51	01:47:39	Asier	Leiza	Arbizu	523
53	01:47:54	Imanol	Galarraga	Lasarte	508
54	01:48:21	David	Caballero	Zornotza	489
57	01:52:07	Alberto	Cermeño	Gasteiz	540
59	01:52:56	Imanol	Rada	Getaria	513

60	01:53:08	Ion	Mendia	Donostia	426
61	01:53:12	Ion	Areso	Donostia	49
62	01:53:38	David	Muñoz	Donostia	446
63	01:53:39	David	Calderon	Zumaia	490
64	01:54:21	Unai	Diez	Tolosa	542
65	01:54:21	Iñaki	Azpillaga	Astigarraga	434
67	01:54:56	Carlos	Arraiza	Berriozar	427
68	01:55:18	Diego	Martinez	Donostia	465
69	01:55:28	Jon	Ochoa	Hondarribia	442
71	01:55:55	Xele	Olaizola	Donostia	454
72	01:56:44	Joseba	Cisneros	Urnieta	498
74	01:57:00	Iñaki	Baños	473	
76	01:59:13	Iker	Mujika	Andoain	480
77	02:00:07	Ander	Etxabe	Zumaia	470
78	02:00:07	Mikel	Uranga	Zumaia	493
79	02:00:21	Mikel	Zabala	Donostia	430
80	02:01:03	Eneko	Aldaz	Andoain	436
81	02:01:25	Roberto	Paniagua	Urnieta	522
82	02:01:58	Alberto	Barroso	Andoain	422
83	02:02:41	Mikel	Aparicio	Basauri	543
84	02:04:55	Mikel	Ruiz	Hernani	428
88	02:07:14	Axier	Zabaleta	Donostia	463
89	02:07:21	Jonathan	Lopez	Urnieta	511
90	02:07:33	Imanol	Arrizabajaga	Hernani	505
91	02:13:23	Joseba	Unanue	Urnieta	521
95	02:20:02	Aingeru	Baena	Astigarraga	433
96	02:20:03	J. Antonio	Lafuente	Irun	485

97	02:20:44	J. Antonio	Hernandez	Lasarte	464
98	02:21:38	Marcos	J-P	Hendaye	506
99	02:26:31	J. Mari	Izagirre	Donostia	455
100	02:28:21	Josu	Mujika	Andoain	536
101	02:28:21	Jon	L. Munain	Andoain	466
103	02:32:46	Kepa	Ganuzza	Tolosa	545
104	03:51:33	Javier	Lopez	Donostia	79

EMAKUMEZKOAK POSTUA | IZENA | DORTSALA

1	01:37:26	Eva	Gonzalez	Zornotza	488
2	01:44:20	Amair	Iglesias	Errenteria	441
3	01:45:35	Igone	Campos	Zumarraga	487
4	01:47:54	Maialen	Gurrutxaga	Andoain	451
5	01:49:14	Paule	Zenikazelaia	Mungia	68
6	01:52:14	Gurutze	Lopetegi	Zestoa	520
7	01:54:30	Maialen	Aranegi	Oiartzun	444
8	01:55:54	Saray	Rodriguez	Eibar	483
9	01:57:00	Elena	Santervas	Urnieta	532
10	01:57:57	Ana	Rodriguez	Hernani	539
11	02:05:04	Marijose	Arteaga	Idiazabal	507
12	02:05:04	Nagore	Martiarena	Irun	535
13	02:06:37	Estibx	Ezkurra	Hernani	534
14	02:14:53	Oihana	Mendizabal	Donostia	457
15	02:19:03	Mariana	Cuevas	Mexico DF	438
16	02:20:02	Amaia	Gonzalez	Galdakao	499
17	02:32:46	M. Jesus	De La Fuente	Granada	544

Xarpak eta xerpak

Andoni Urbistondo # Lasterkaria

Nondik hasi... inor, ezer, plaza honetara ekarri gabe. Edo batzuk, zerbait, besteen gainetik jarri gabe. Astelehen arratsalde: Porru eginda nago. 27 orduetan, edan eta lo, ez dut besterik egin. Irratian hitz batzuk bota, apenas. Eta buelta emateko komeriak. 26,4 kilometro, 1.700 metroko desnibel positiboa eta 4.53.00 herriko plazan. Bestela esanda, 293 minutu luze. Eta atzo baino lehen, 7 hilabete bukaezin, **Gaizka** lehengusuarekin **Larre-Gain** eta **Adarra** aldeko bazter eta zoko guztiak gorrotatzeraino.

laz arantza txiki batekin bukatu nuen. Baimendutako denbora gaintu nuen 10 minutugatik. Aurten barruan iritsi naiz. Legezko finisher-a naiz. Eta baldin banaiz, **Antsoko Etxolaz** geroztik **Txitxo Salas** alboan izan nuelako da. 'Erratz' lanetan, haren esanek, elkarrizketek, gel eta edariak mantendu ninduten lasterketan. Bubu zakurra aurrera eta atzera zebilen, putzu guztietan sartzen, 'alegrí' pixka bat ematen. Eskertza zerrenda luzea daukat. Datorzkiten bezala botako ditut, inor ez bedi haserretu ahazten banaiz. Xarpak eta xerpak.

Zusta biak da. Xarpa eta xerpa. Mai-mai xerpa. Egunen batean xarpakide izango ote da. Adarra-mendin zain irauteagatik. Hauspoagatik. Xarpa



Andoni Urbistondo Txitxo Salasekin.

Team-eko whatsapp kide askori. **Jokin Lizeaga**ri, ez-gauza nintzela helmugara iritsi eta babes emateagatik, sari astun batez gain. **Juelo** eta **Cipori**, ni adina edo gehiago hustu direlako negu gorrian, eta erretiratzea deliberatu zutelako, osasuna zaintzeko. **Potti**, **Miel Tikiya**, **Martinez** gaztea, **Peio Pelotas**, **Narbar** eta **Elortxa** xomorroak, **Tomax** eta beste. Baten bati gin-tonic pare bat ordaindu beharko dizkiot, lasterketaren kontura. Bazkariren



Jokin Lizeagaren eskutik jaso zuen saria.

bat ere irabazi dut, baino ordainduko duenak zor asko kitatu zituen lasterketa egunean bere buruarekin, eta poztzen naiz.

Xerpa anonimoak: **Maxus** Aierdikua **Larburun**, **Pozontarri**ko anoa-puntuari zikloturista elkarteko lagunak, **Onddin Pattaka**, **Antsoko Etxolan Eñaut**, **Juanjo**, **Ana**, **Jabier Legarreta**... **Koro Barreneetxea** nire bestuario arduraduna, 100 kiloko pardelarentzat oinetako onak saltzeaz gain mendian gora ziztu bizian

ibiltzen dena. **Almu** errekararen bidean, **Adarra**n behe-za zetozenak, **Maddi**, **Asier Goikoetxea**, bere aita. **Etenetakoak**, eta **Zaburun** elurra ikusi eta hotzez akabatu beharrean zeuden Sosio eta bere alaba. **Onddon Farrus** eta **Kali**. **Xoxokatarrak Lizarratxo**peko ur depositoa. Santakruzetako joaldia pasa gabe ziren eskubaloi taldeko gazteak. Millusen behe-za musker guztiak aztoratu zituzten udaltzainak, bere sirena soinuarekin. Eta helmuga... Zerua. Txalok, zerbeza aparra, **Aritz** eta **Aitziber** garaileak albo bantatzen, konturatu ez banintzen ere... **Aitor Eldua**ien hizlariari, entzun, edo ulertzeko gai ez nintzen animoengatik. **Amona Mamen** eta **Clara Alvarez**en besarkada goxo haiek... **Kantoiko Juanito** zerbitzariari. Milesker denei.

Mizpiradin lagun giro dotorea izan genuen. Lasterketako kontuak. **Xauxar**-en ilunabarreko epeltasuna freskatzen ari zirenei ere milesker, harrera beroagatik. Antolatzaileei zorionak, gauzak ondo egiteagatik eta ibilbide gogor eta luzea kritikatu dugunoi barkatzeko eskatu, ahal badute. Ibilbidea, atzo, ikusgarria zegoen! Hitz goxoak bukatze aldera **Maite Begiristain**entzat, Eroskiko Maite, urnietarrontzat. 'Hari segitzen badiok aise iritsiko haiz 5 orduetan. Horrek asko igotzen dik', esan zidan lehengusuak. Saiatu nintzen, baina **Arlegorrera** bidean martxa egin zuen. Eta **Adarra**n gora ikusi nuen azken aldiz. **Xabier Goenaga** kintoak dioen moduan, 'koraje' latza dauka Maitek, bere adinarekin nola ibiltzen den! Nahiko genuke, askok... Zorionak berari. Oker ez banago, damu zen ibilbide luzea aukeratu izanaz, gehitxo ote zen, eta 2017an biok ibilbide motza egingo dugula agindu genion elkarri, argutu aurretik, "gozatzeko".

Hala bedi.

Antolaketarako azpiegitura handia



Herriko elkarte ugari lanean aritu ziren. Irudian, Denda Berri elkarteko kideak arkupeetako postuan.



Antolatzaileek probaren jarraipena egiteko pantaila jarri zuten. Irudian, Unai Lizeaga lasterkaria.



Helmugara iritsi eta poltsak banatzen eta txipa kentzen aritu ziren bolondresak.



Bi lasterkari zapatilak garbitzeko iturriaren ondoan.

Joseba Labaka probaren antolatzaileak lasterketaren atarian aitortu bezala, "Bolondresen lanik gabe ez dago lasterketarik. Lan ikaragarria egiten dute: Mendia garbitu, ibilbidea markatu, hornikuntza guneak antolatu eta bertan egon,... lagun askoren beharra izaten dugu. Ehundik gora izango dira, denera". Beste behin ere, laguntzen aritu ziren herrikide horiek guztiak lan bikaina egin zuten alor ezberdinetan: Seinalizazioa, hornikuntza guneak, helmuga, taberna, bazkaria,... Ezin ahaztu ere Udaltzaingoak edota Gurutze Gorriak egindako lana, hain garrantzitsuak diren trafikoko, segurtasun eta artatze mailan. Askoren lanari esker egin daiteke horrelako lasterketa bat. Bestela ezinezkoa da.

Hamaika hitzordu bost egunetan zehar



Peña Santa Krutz elkarteko danborradak elkartean egiten du lehen saioa, herrigunera abiatzeko gero.



Herri danborrada igande arratsaldean abiatu zen, bazkaria egin eta gero.



Mugaz gazte bandak musika emanaldi berezia Juanita Alkain plazan, igande arratsaldean.



Koroa eta txistulariak Santa Krutz elizan, astelehen iluntzean.



Batukada feministak igande eguerdian kalejira egin zuen.



Igande iluntzean garai bateko erromerrien ohitura biziberritu zuten.



Gaztañaga sagardotegia nagusitu zen, Rezola eta Eularen aurretik.



Basataloak taldeko kideen postura ehunka herritar hurbildu ziren.



Elegantz jantzitako lagunak, Zumea plazan dantzan.

Astelehena izan arren, Bekoplaza beteta

KOADRILEN EGUNAK INDAR BEREZIA DU FESTAZALEEN ARTEAN, ASTELEHENA IZANIK ERE EHUNKA LAGUN BILTZEA LORTU BAITZEN. BAZKARIA, BAZKALOSTEAN ETA ONDORENGO KALEJIRA GIRO BIKAINEN IGARO ZIREN.



Mahai guztiak bete ziren koadrila guztiei tokia egiteko. Ehunka lagun elkartu ziren Bekoplazan.



Gazteak nagusi ziren koadrilen egunean, baina adinean gora doazenak ere Bekoplazan elkartu ziren.



Neskaz eta mutilez osaturiko koadrila gaztea, bakarrenetakoa Santa Krutz jaietan.



DJ Bull disko jartzaile ezagunarekin kalejira burrunbatsua egin zuten herrigunean.



Zumea kalean jendetza zebilen astelehen arratsaldean, gauza bera ikus daiteke Zumea plazan.

Ikurriñaren jaitsiera, zirrara garria

MAIATZAREN HIRUA EGUN HANDIA DA ANDOAINEN. SANTA KRUTZ EGUNeko IKURRIÑAREN JAITSIERA ETA MEZA AURREKO ZEIN ONDORENGO DANTZA SAIOAK JAIARI NORTASUN BEREZIA EMATEN DIOTEN EKITALDIAK DIRA. KLASIKOAK DIRA, ZIRRARAGARRIAK.



Txistulariek bidea ireki ohi dute, alboetan eskopeteroak. Eta erdian Udal ordezkariak.



Ezpata dantza Santa Krutz elizaren atarian, mezara sartu aurretik.



Korrika zubitik elizaren kanpoaldera doaz, Udal ordezkarien arkua osatzera.



Dantzariak eta eskopeteroak bere tokian ipinita, alkatea arkupetik igarotzen da aginte-makila eskuan.

Txakoli dastaketa jendetsua, meza amaituta



Jendetza bildu ohi da Espigoian, txakoli dastaketaz gozatzera.



Argazkikoek lanik ez zuten falta izan txakoli dastaketan, Santa Krutz eguneko meza ostean.

Jaiei amaiera emateko lehiaketa goxoa

HERRIGUNEKO HAMASEI TABERNA ETA JATETXE PINTXO ONENAREN BILA LEHIATU ZIREN. ARGAZKIETAN IKUS DAITEKEenez MAILA HANDIKO PINTXOAK AURKEZTU ZITUZTEN. LEHIA ESTUA IZAN ETA GERO, HIRU JATETXEA NAGUSITU ZEN.

Maila handiko pintxoak ikus zitezkeen lehiaketa-
ra aurkeztutako taberna
eta jatetxeke barra gai-
nean. Azken erabakia
hartzea, horrenbestez, ez zen erraza
izan. Azkenerako, aurreko urteetan ir-
baztear izan zen Hiru jatetxeak eskura-
tu zuen sari preziatua. Zer esanik ez
poz handia eragiten duela horrelako sa-
ri bat jasotzeak. Parte hartzaileen maila
ikusita, bosgarren edizioa ere maila
handikoa izango da.



AMAMA KLAUDIA.



Hiru jatetxeke Ane Etxeberriak Mikel San Jose, Axintxio Karrera eta Javier Miguel epaimahakideen esku-
tik sariaren berri jaso zuen.

2016ko edizioa: Hiru.
2015eko edizioa: Bastero.

2014ko edizioa: Trañerum.
2013ko edizioa: Urkiola.



BASTERO. *2015eko irabazlea.



GAZTELUTXO.



IRUNBERRI.



TOKITXO.



TRAIÑERUM. *2014ko irabazlea.



URKIOLA. *2013ko irabazlea.



TXURIBELTZ.



ZERU.



XAXI.



TXOSNAK.



TXINDOKI.



TXITIBAR.



TXALAKA.



MIGURA.

Sute ikusgarria piztu zen igande eguerdian Celulosas enpresan

Udalak erretako eraikina botatzeari ekingo dio



Olazar parkeko bidean dagoen pabilioaren behelaldean piztu zen sutea, goiko solairura iritsi zena.



Suhiltzaileak sutea piztu zen tokian.



Suteak, pilotutako zabor gunean piztean, ke beltza sortu zuen.

Aurreko igande eguerdian herri-gunea jendez gainezka zegoela, sute ikusgarria piztu zen Olagar parkearen artean dagoen Celulosas Site enpresaren eraikinean. Pilotutako zaborrak su hartzean, ke iluna botatzen zuen sutea eragin zuen. Ke beltza eta usaina berehala zabaldu ziren herrigunean. Andoingo Udalak, gertaera hura eta gero, eraikina botatzeari ekingo dio. Eraisteko egitasmoa landu eta Ur Agentziaren baimena eskatu eta gero eraisteari ekingo dio. Aspaldi utzita dago eraikin hori, eta Udalak dagoneko hondamen egoera deklaratu zuen. Eraikinaren jabea ez du botatzeko pausurik eman. Lehengo sutea eta gero, eraikinak duen arriskua ikusita, Udalak eraisteko lanak aurreratu nahi ditu.

Inguru horietara Udaltzaingoa eta Ertzaintza behin baino gehiagotan hurbildu da, liska-

IRUDI IKUSGARRIA SANTA KRUTZ EGUNEAN

Astearte eguerdian, suhiltzaileek ura hartzeko erabili ohi duten sarbide bat lehertu zen ibilgailu batek aurretik eraman eta gero. Ura erruz ateratzen hasi zen orduan, irudi ikusgarria sortuz. Uraren presio handiarekin, sortu zen "iturria" hirugarren solairuraino iritsi zen. Berehala, ur hoditeri horren emaria itxi zuten. Laster konponduko dute. Ur itxiera horrek ez die bizilagunei eragiten.



rrak direla medio. Auzotar batzuk ere kezka adierazi diote Andoingo Udalarari. Auzoz auzoko bileretan, esaterako, bizilagun talde bat pabilio horien inguruko kezka agertu zuen.

Segurtasuna eta zaintza areagotzea eskatu zioten Udalarari.

Maiatzaren 1eko sutea eta gero, erretako eraikina denbora epe laburrean bota dezakete.

Pilar Alvarez zendu da



Pilar Alvarez iazko urrian, bere hiru alaba alboan dituela. Ezker eskuin, Mari Kruz, Inma eta Luisa Gomez. Laugarren alaba falta da, Mertxe izenekoa.

Maiatzaren 1ean, 93 urte zituela, hil zen Pilar Alvarez Garcia andrea. Sortzez soriarra zen, eta askotxo bezala gaztetan Andoainera iritsi zen bizitza hobe baten bila. Andoaindarrak 400 ekimenerako ikus-entzunerako lekuko-tza polita utzi zuen. Hori go-goan, Udaleko Euskara zerbitzuburu Arantza Aguadok lerrotan esker ona adierazi nahi dio.

Arantza Aguado Euskara zerbitzua

"Aste honetan joan zaigu Pilar, isil-isilik, Andoainera 1947. urtean iritsi zen bezalaxe, zaratarik gabe. Pilar Soriakoa zen, Tera herrian jaioa. Han etorkizun handirik ez zegoela ikusi eta, ezkei-bidai gisa, Andoainera abiatu zen Jerónimo senararekin. Hemen jaio eta hazi ziren zortzi seme-alabak, baita biloba eta berbiloba asko ere.

Hemen, Andoainen, pasa zituen ia 70 urte, hau zen bere etxea, "aquí es mi casa, mi pueblo" zioen Pilarrek pasa den udazkenean, 400 herritatik euskarara erakusketarako grabatutako bideoan. Hemengo ohiturak, hemengo jendeak, hemengo kantak maite zituen, eta maitasun hori transmititu zien etxekoei, horren lekuko bere leinutik sortutako 22 euskaldun. Pilarrek bezalaxe, kanpotik etorritako beste hainbat emakumek eta gizonek sustraitu zuten beren ondorengoan bihotzetan euskararekiko maitasuna, eta gogoan behar ditugu izan, azken finean aurrekoei zor diegu garena eta: "Que se sepa (...), que la sangre que circula por nuestro cuerpo circula también por los siglos pasados y circulará por los venideros hasta el fin de los tiempos..." (Luis Landero "El balcón en invierno").

Postontzia Karmele Otaegi

"Egari zor, historia, nahiz txikia izan, datuekin idazten baita.

2016ko apirilaren 22ko Aiuurri aste-karian Santakruzak 2016 gehigarriaren barruan argitaratutako "Gertaera liskartsuak iraganean, danborradan emakumeak parte hartzeko eskatuz", artikuluan idatzitakoari bi zehaztasun egitea beharrezkoa dela iruditzen zait, batez ere hurbileko historia txiki hori gogoratzea nahi badugu, dakizkigun datu guztiekin azaldu behar dugula uste dudalako.

Lehenengo protestari dagokio, argazkian azaltzen denari, lehenengo puntualizazioa, eta esan jakin badakigula protesta hori 1984ko maiatzaren 2an izan zela, eta antolatzen zuten emakume taldeari dagokionez, EMK alderdiko emakumeak zirela gehienbat; bestalde, argazkian argi ikusi daitekeen modura; gero, beste batzuek bat egin genuen pro-

testarekin, baina ideia, meritoa, beraien izan zen batez ere, eta hori esan beharra dago.

Bigarren zehaztasuna zuzenketa bat da. 1985eko Zumeatarra elkarteko danborradan parte hartu zuten emakumeak ez ziren "lauzpabost" izan artikulua dioen bezala, gutxienez hamaika-hamabi izan ziren eta hori frogatzen duten argazkiak egon badaude. Azken datu horrek bi hausnarketa egitera narama: batetik, behartuta baino bizkor ibili zela Zumeatarra elkartea danborrada jotzen emakumei aukera emateko garaian, hain zuzen ere protestaren hurrengo urtean; datuak hor daude. Eta, bestetik, "lauzpabost" "hamaika-hamabi" direnean, esaten denean: "begira zenbat liskar total hain gutxi ateratzeko" esan nahi da, en fin, subkonstzientea! Batzuk oraindik ez dute ulertu han eseri ginenok ez genuela danborra jo nahi, jotzeko eskubidea aldarrikatu baizik".

MARGA OYARZUN IYURRITARI ELKARRIZKETA

Sormena lantzeko tailerra

Andoaingo Sormen tailerreko Marga Oyarzun Iyurrita izan zen "Martxoak 8 emakume" kalejiran omendu zituzten emakumeetako bat.

Herriko haurren sormena pizten egiten duen lana eskertu nahi izan zuten. Ia berrogei urte daramatza tailerrean, eta ez zaio erretiroa hartzeko asko geratzen.

Nola hartu zenuen martxoko omealdiaren izendapena?

Marga Oiarzun. Harrituta lehengo eta behin, noski. Ekitaldia ez bainuen gertutik ezagutzen. Hasieran ez nuen oso ondo ulertzen zertara zetorren, baina gero zera pentsatu nuen: "izendatu banaute, bizitza honetan zeozer ondo egin dugulako izango da, eta hortaz, aurrera". Iruditzen zait tailerreko ikasleen zenbait gurasoen kontua izan dela ni izendatzearena. Egia esan, nire ibilbidea nahiko lotua joan da tailerrera, eta testuinguru horretan ezagutzen naute herrian askok.

"Martxoak 8 emakume" ekimenaren aurreko edizioak ez nituen ezagutzen, baina aurtengoa oso hunkigarria egin zait. Oso zaindua, barru-barruraino satzen zaizuen horietakoa. Oso eskertuta nago antolatzaileekin, eta baita ere kalean-eta zorionak eman dizkidaten herritar guztiekin.

Tailerra noiztik dago Andoainen?

M.O. 1978-1979. ikasturtean, Eduardo eta biok abentura honetan sartzea erabaki genuenez geroztik! Santa Krutz zubien parean, Zubiaurre etxe-ko etxebizitza batean hasi ginen. Labordeko nire lankide ohien seme-alabak izan ziren, batik bat, gure lehen ikasleak. Nahiko arrakastastua gertatu zen, ze agudo, itxaron zerrenda sortu behar izan genuen tailerrean sartzeko. Izan ere, garai hartan, Andoaingo gazte-ko eskolaz kanpoko jardueretan ez zuten eskaintza han-



Sormen tailerrekin berrogei urte betetzera doaz Marga Oyarzun eta Eduardo Arreseygor.

diegirik edukitzen: musika, kristau ikasbidea eta ezer gutxi gehiago. Kirola ere ez zegoen orain beste antolatuta eta masisifikatuta. Marrazketaren arloan, Juan Batista Barandiaranek bazeuzkan ikasle batzuk. Geroxeago joan ziren irekitzen Udal kiroldegia, Bakartxo Arabolazaren dantza eskola, ingeleseko akademiak...

Kale Nagusiko beste etxebizitza batean zenbait urte egin ostean, Doktor Huitziko honetara etorri ginen. Hogeita bost bat urte badaramatzagu bertan.

Makina bat belaunaldi igaro da zuen eskuetatik...

M.O. Ehunka eta ehunka gazte bai! Eta pozgarriena ba al dakizu zer den? Ikasle izan ditugun askoren seme-alabak ere guregana etortzen direla ikus-

tea! Belaunaldien arteko transmisioa egon den seinale, tailerrek herrian oraindik bere funtzioa betetzen duen seinale.

Zein izan zen zuen helburua tailerra irekitzean?

M.O. Hasiera-hasieratik ekin genion zeramikagintzari, marrazkigintzari eta argazkigintzari. Funtsean, iraganeko filosofia berberari eusten diogu gaur egun: gazteen sormena piztea, ikuspegia zabaltzea, barruan daukaten sortzeko jorera hori bideratzea... Umeeek aurreneko urteetan egundoko sormen gaitasuna eta bapatekotasuna edukitzen dute, eta buztinarekin-eta jarduten dute.

Sei urtetik aurrera, maketeriarekin, eraikuntzarekin... hasten dira eta sormen lan harriarriak egiten dituzte. Or-

duan hasten dira kanpoko erreferentziak kontuan hartzen eta beren irudimen pertsonalean integratzen.

Desberdinak al dira iraganeko eta oraingo haurrak?

M.O. Lehengoak kaletarragoak ziren, onerako eta txarrerako. Astakiloak zirela esango nuke; malizia gehiago zeukaten. Gaur egun oso pertsona nobleak etortzen zaizkigu. Sormenari dagokionez, izugarri aldatu da panorama, eskura dauzkaten baliabideen laguntzaz: lehengoek etxean ere ia ez zuten margotu ere egiten, eta oraingoek, ordea, telebista, internet, aplikazio informatikoak... zer ez ote daukaten! Oso abilak dira baliabide teknogikoe-tan eta hortik egundoko informazioa eta erreferentziak jasotzen dituzte.

"Nire ibilbidea nahiko lotua joan da tailerrera, eta testuinguru horretan ezagutzen naute herrian askok"

Zuen tailerreko eskaintza estimatzen al da herrian, gurasoen artean...

M.O. Ez dago erraza lana. Iraganean, bazegoen mentalitate jakin bat pentsatu ohi zuena huskeria zela gurea, tailerrean ikasi zitekeenak ez zuela balio handirik eguneroko bizimodurako. Aldatzen doa ikuspegia zorionez, eta gaur egun normala da guraso edo ikasle ohi batek aitortzea tailerrean hartutako formazioa oso ondo etorri zaiola gero unibertsitatean edo lantokian. Dela arkitektura, dela biologia, dela medikuntza... Ama batek zera adierazia zidan: bere semeak autoen sektorean egiten omen du lan, eta buztinezko maketak egin behar izaten dituzenez primeran dator kiola gure tailerrean jaso zuen oinarriko formakuntza. Horretarako kimikaren arloan dabilen ikasle ohi batek ere antzekoak kontatu izan dit, marrazketaren kontura.

Artista baten itzalean jarduten duen beste artista zarela adierazi zen martxoak zortziko ekitaldian...

M.O. Nik ez dut artistatzat hartzen nire burua, eta egia da Eduardoren ondoan aritu izan naizela beti. Hori bai, tailerrean ez da soilik sormena lantzen eta margotzen, hamaika eginkizun daude eta horietaz arduratzen naiz.

Erretiroa hartzeko azken txanpan zabilzala ere aipatu zen...

M.O. Eduardo eta biok jubilaziorako atarian gaude. Ez dakit ziur noiz izango den gure azken eguna, baina ez guke nahi tailerra isterik. Sormen artistikoaren arloan tailerrek bere funtzioa bete du herrian, eta hala segi zezan nahi guke. Bere iraupena ziurta dezakeen ekimenarekin buru belarri gabiltzala da oraingoz aurreratu dezakegun gauza bakarra.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Euskara Zuzendaritza



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA



KIROL ALBISTEAK

Santa Krutz jaietako krosa



Aurtengo edizioako irabazleak.

Sailkapena, gizonezkoak:

1 Gomez, Raul	32:40	Lasarte
2 Perez, Javier	32:51	Irun
3 Rodriguez, Mikel	32:52	Andoain
4 Valdivielso, J.Carlos	32:58	Beasain
5 Regillaga, Aitor	33:22	Tolosa
6 Urizar, Patxi	33:22	Villabona
7 Señorán, Unai	33:27	Iruira
8 Etxebeste, Aitor	33:35	Beasain
9 Ruiz, Agustin	34:10	Azkoitia
10 Mendizabal, Aritz	34:15	Ordizia

Sailkapena, emakumezkoak:

1 Colomo, Lourdes	39:02	Zizurkil
2 Guerrero, Hoki	39:25	Hernani
3 Etxezarreta, Leire	39:27	Andoain
4 Gonzalez, Ana	42:14	Renteria
5 Ruiz, Arantxa	43:06	Andoain
6 Etxezarreta, losune	43:55	Andoain
7 Olazabal, Mirene	44:26	Andoain
8 Iguaran, Nekane	45:03	Hernani
9 Ruiperez, Ana	45:54	Irun
10 Mugica, Idoia	46:33	Ordizia

Eskualdeko partaideak:

12 Lanz, Ion	34:49	Andoain
35 Tellexea, Iker	38:56	Andoain
39 Ruiz, Javier	39:03	Andoain
41 De Godos, Pedro	39:15	Andoain
42 Vidaurreta, Jon	39:15	Urnieta

46 Etxezarreta, Leire	39:27	Andoain
55 Etxezarreta, Andoni	41:17	Andoain
56 Escudero, Oier	41:27	Andoain
57 Prado, J.Antonio	41:43	Andoain
60 Flamarique, J.Maria	41:51	Andoain
62 Alvarez, Ernesto	41:57	Andoain
63 Patino, J.Maria	42:08	Andoain
64 Hernandez, Alejandro	42:12	Andoain
68 Garcia, Javier	42:45	Andoain
70 Minguez	42:56	Andoain
72 Lanz, Andoni	43:08	Andoain
73 Truchuelo, Roberto	43:08	Andoain
77 Lopez, Luis	43:34	Andoain
78 Etxezarreta, losune	43:55	Andoain
79 Salinas, Asier	43:55	Andoain
82 Rabadan, Igor	44:10	Andoain
84 Parra, Rodolfo	44:22	Andoain
85 Olazabal, Mirene	44:26	Andoain
88 Iribar, Ion Koldobika	45:10	Urnieta
92 Hernandez, Juan M.	46:26	Andoain
95 Lopez, Alberto	46:39	Andoain
96 Lavaud, Iñaki	47:16	Andoain
97 Aldaz, Emilio	47:20	Andoain
99 Collantes, Mikel	47:42	Andoain
100 Nieto, Patxi	47:43	Andoain
101 Leibar, Ainara	48:16	Andoain
104 Barreña, Poli	48:34	Andoain
105 Olazagirre, Igor	49:26	Andoain
108 Bere, Igor	49:55	Andoain
109 Erkizia, Joseba	49:56	Andoain
111 Poza, Itziar	49:58	Andoain
113 Goikoetxeaundia, Mari	50:12	Andoain
115 Cabo, Javier	51:28	Andoain
116 Merino, J.Luis	51:38	Andoain
117 Fernandez, Armando	51:39	Andoain
118 Villas, Begoña	51:41	Urnieta
120 Nuñez, Mari Jose	51:46	Andoain
121 Parra, Eduardo	52:13	Andoain
122 Valdecantos, J.Pablo	52:16	Andoain
123 Lacalle, Amaia	52:29	Andoain
124 Tellexea, Olatz	52:29	Andoain
126 Dieguez, Unai	52:57	Andoain
127 Astorga, Ruth	52:58	Andoain
128 Belaunzarán, Pello	52:58	Andoain
129 Enriquez, Dani	53:01	Andoain
130 Urretavizcaya, Arantxa	53:35	Andoain
132 Corchero, Laura	56:04	Andoain
133 Calle, Antonio	56:10	Andoain
134 Solana, Alberto	56:10	Andoain
135 Fuentes, Ramon	56:10	Andoain
136 Ameztegui, Maider	57:36	Andoain
137 Eizaguirre, Itxaso	57:46	Andoain
138 Etxeberria, Axier	58:12	Andoain
139 Sarasibar, Vanessa	58:13	Andoain
142 Erleanduaga, Saioa	59:41	Andoain
143 Larrañaga, Jone	1:00:04	Andoain
144 Conde, Raquel	1:00:04	Andoain
145 Amondarain, Ane	1:00:04	Andoain
146 Lopez De Arregui, M1	1:00:04	Andoain
147 Amobategui, Garbiñe	1:00:04	Andoain



Haur krosa, helduen lasterketaren ondoren egin zuten.



Bi lasterketen argazkiak ikusgai daude aiurri.eus gunean.

Haur mendi irteera



Zanpatuz mendi elkarteak irteera antolatu du maiatzaren 14rako.

Familia osoa Mullisko-Onddi aldera eramateko moduko plana antolatu du Zanpatuz mendi elkarteak. Datorren maiatzaren 14an haur eta gaztetxoak mendira eramatea sustatu nahi du. Txikienak Mullisko aldera abiatuko dira, eta handienak Onddira.

IRTEERA

- Maiatzak 14, larunbata.
- 09:30 Besabi.
- Izen ematea: Ikasmin, Xauxar, Kantoi.
- Epea: Maiatzak 10.
- Prezioa: 4 euro.
- Ibilaldia eta gero, hamaiketako izango da denentzat.

Bigarren patin lasterketa



Andoingo patinatzaileek ospakizun giroa eman zioten lasterketari.

Euriari aurre eginez, aurreko larunbatean egin zuten Andoingo herrigunean antolatutako lasterketa-

ra. Gazteizko marianistak ibilbide bustian inoiz baino hobeto moldatu ziren, sailkapenean lehen postuak eskuratuz.

Santa Krutz jaietako proba



Alebinak:

1. Dani Fursenko (Andoingo).
2. Markel Galparsoro (Ampo).
3. Igoia Pikabea (Andoingo).

Infantilak:

1. Gaizka Aranburu (Ampo).
2. Joanes Telleria (Ampo).
3. Ibai Omeñaka (Andoingo).

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Buztina

INISTORRI

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurlaritzaren

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzailea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

MAIATZAREN 6TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- **"Kiki, el amor se hace".**
Larunbata, 7. 19:30, 22:00.
Igandea, 8. 19:30.
Astelena, 9. 19:30, 22:00.
- **"Libro de la selva".**
Larunbata, igandea. 17:00.
- Dokumentala:
"Gure sor lekuaren bila". Josu Martinez zinemagilea bertan izango da.
19:00 Ekitaldi aretoa.
Maiatzak 10, asteartea.

Urnietan, Sarobe

- **"Aviones de papel".**
16:00, 18:30.
Maiatzak 8, igandea.
- **"Los cinco y el secreto de la piramide".**
16:00, 18:30.
Maiatzak 15, igandea.

Deialdiak

Urnietan

- Udalak udaleku irekiak eta kirol-udalekuak antolatuko ditu uztailean, 4-12 urte artekoentzat. Izena emateko epea zabalik maiatzaren 6ra arte.

Euskara

Senpere

- Herri Urrats euskararen aldeko ospakizuna.
Maiatzak 8, igandea.

Antzerkia

Andoain, Bastero

- **"Oh vino"** antzezlan, gaztelaraz.
20:00 Ekitaldi aretoa.
Maiatzak 7, larunbata.
- **"El florido pensil (neskak)",** Tanttaka taldearen eskutik.
21:30 Euskaraz.
Maiatzak 13, ostirala.
- **Ene Kantak** haur ikuskizuna, sarrerak agortuta.
17:00.
Maiatzak 15, igandea.

Proba

Urnietan

- Administrarien lan poltsan euskarako 3. hizkuntz eskakizuna baieztatzeko proba idatzia.
09:30 UNED, Gasteiz.
Maiatzak 10, asteartea.

Farmaziak

Eskualdea

- Andoain: Arzallus. Aita Larramendi, 26.
Urnietan: Aguado. Kale Nagusia, 21.
Eroski ondoan.
Astigarraga.
- Gazez: Urrutia. Etxeberri, 1.
Florida auzoa.
Hernani.
Maiatzak 7, 8.

Sariketak

Urnietan

- XXII On Manuel Antonio Antia lehiaketaren sari banaketa ekitaldia. Haur eta gazteen mailako lehiaketa.
19:00 Sarobe.
Maiatzak 11, asteazkena.

Andoain

- **Rikardo Arregi** Kazetaritza Sariaren edizio berria. Sariaren atal ezberdinetarako lanak maiatzaren 12a baino lehen aurkeztu behar dira.
Epea: Maiatzak 12.
Sari banaketa: Uztailak 9.

Dantza

Urnietan

- **Gazte Funkyko** ikasleen ikas-turte amaierako emanaldia.
18:30 Sarobe.
Maiatzak 20, ostirala.
- **Balleta** eta sormen dantza erakustaldia.
18:00 Sarobe.
Maiatzak 25, asteazkena.

Deialdia

Urnietan

- Udako egonaldiak menpekotasuna duten adineko pertsonentzat.
Bertan: 943 008 000.
Izena emateko epea: Maiatzak 6, ostirala.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Maiatzaren 7an gure **Odile** igarri-ek 6 urte beteko ditu!! Muxu handi bat etxekoan partez!

ANDOAIN

ZORIONAK



Naroa Irazu Romanek 7 urte beteko ditu maiatzaren 12an. Zorionakbihotza, muxuak etxeko guztien partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Peru 2 urte bete zenituen apirilaren 26an. Potti Potti. Muxu handi bat amoni eta Aba, Jaio eta Elurbxin partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Ekhik apirilaren 27an, 8 urte bete zituen. Zorionak eta muxu pila zuretzat etxekoan partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Aritz Gil Garmendia, printzesa jada 7 urte. Beti bezain alai jarraitu. Muxu handi bat etxekoan partez.

ANDOAIN

ZORIONAK



Urko dagoeneko 11 urte. Gizontxo batean bihurtzen ari zara, segi horrela jator eta alai. Muxu bat aitaren eta amaren partetik.

URNIETA


ZORIONAK



Nire **Alain** printzeak 9 urte bete zituen pasa den apirilaren 28an, zorionak eta muxu erraldoiak.

URNIETA

ZORIONAK




Maiatzaren 7an **Paulen** lehenengo urtebetetzea ospatuko dugu. Eta 14an aitona **Angelen** urtebetetzea. Primeran ospatuko dugu!

URNIETA

Apustu giroa Urnietako mendi lasterketan

Aurreko igandean San Juan plazan Urnietako Mendi Lasterketaren bosgarren edizioa jokatu zen, eta itxarondia girotzeko edo apustu giroa nabaritu zen plaza inguruan. Irabazleak helmuga zeharkatzean zein denbora egin, horixe zen apusturako gaia. Antolatzaileek helmuga inguruan zirenen artean bi gazta zozketatu zituzten.



Kantoi tabernan ez ziren atzean geratu eta gauza bera asmatu nahian, parte hartzaile bakoitzak euro bana jokatu zuen. 68 lagunek parte hartu zuten, eta irabazlea Peio Martin izan zen. Bere txartelak 2:13:42ko denbora ipintzen zuen. 4 segundura, berea izan zen 2:13:38ko denbora errealer gehien gerturatu zena.

"Ganemos Andoain alderdiko botu-emaileei"

Postontzia

"Ganemos-Andoain-Irabazi izeneko hautagaiaren aldeko botoa eman zutenei: Dagoeneko urtea pasa da alderdi bezala osatu ginenetik, Andoaindik eta andoaindarrentzat sortua. Urte honetan zehar egindakoa azaldu nahi dizuegu, eta datozen hiru

urteetarako zer nahi duzuen jakin nahi dugu. Eskertuko genuke zuen parte hartzea, zuen ideiak, proposamenak, kexak, etab.

Horretarako botu-emaileen arteko bilera deitu dugu datorren maiatzaren 20rako Urigain kultur etxean, 19:00etatik aurrera".

XXII.

ON MANUEL ANTONIO ANTIA

Literatur Lehiaketa



Sari banaketa ekitaldia:
Maiatzaren 11n
19:00etan Saroben

Urnietan
2016



EKITALDI HAUEK ETA GEHIAGO WWW.AIURRI.COM/AGENDA.PHP ATALEAN